


DISPERTSIOA

Bisita eskubidearen prezioa

Etixerat Elkarte



Sarrera

Bere ezarpen orokor eta sistematikotik 26 urte bete direnean, kartzelako dispertsio politikaren benetako jomuga euskal preso politikoen lagun eta senideetan isladatzen da, bere errealitate suntsitzailenean. Gu geu gara, presoak bezalaxe, ezohiko politika honen ondorioen hartzaileak. Denboran betikotu den politika sufriarazle eta eskubide urratzaile bat, zeina, gaur egun, estatu espainiarraren apustu nagusienetakoa den, estatu frantsesaren laguntzaz.

ETAren su etenetik lau urte betetzera doazenean, ez gure senide errepresaliatuen egoera, ezta gurea ere, ez da aldatu. Gure senide eta adiskide loturei uko ez egitearen prezioa sufrimenduarekin ordaintzen jarraitzera behartuak gaude. Preso den edozein pertsonaren famili eta erlazio ingurumarian ematen diren muga eta zailtasunei, kaltea sortzea besterik ez bilatzen ez duen ezohiko politika batek sortutakoak gehitu behar dizkiegu guk. Egungo kartzela politikaren ondorioak gure bizitzako alor guztietan era suntsitzaile batean isladatzen dira: ekonomikoan, fisikoan, afektiboan, lanekoan, sozialean...

Dispertsio politikak, oso zailki sostengatu daitekeen odoluste ekonomikoa esan nahi du. Alboratu ezin ditugun baldintzetan (egunak, ordu-tegiak, distantziak...) egindako desplazamenduek sortutako hondatze fisiko eta psikikoa esan nahi du dispertsio politikak. Eta dagoeneko 16 biktima eragin ditu. Ezin-gonak, etengabeko tentsioak eta tratu iraingarriak sortutako hondatzea esan nahi du. Erabateko intimitate faltak eragindako ezinbesteko erosio emozionala, gure komunikazio guzti- guztiak interbenituak daudenean.

Baita ere, funtzionarioek zein komunikabideek gure bizitza eta sentimenduetara duten sarbide errazagatik, hauek publikoki zabaltzeraino. Eta nola ez, gure jardueren kriminalizazio saiakerek sortutako presioagatik, objektu garen jazarpen eta anonimoki zein publikoki jasaten ditugun mehatxu eta xaxapenengatik (gogoratu behar dugu erasotuak eta harriatuak izan garela).

Gobernu arduradunek, ordezkari politikoez eta dispertsioaren beste alderdi batzuk kartzela politika honek eman dituen emaitza on askoak argudiatuz saiatzen dira bere mantentzea justifikatzen. Baina ez dute inoiz

kontatzen zeintzuk ez zenbat izan diren emaitza horiek. Guk bai esan dezakegula: dispertsioak sufrimendua bilatu eta sufrimendua sorrarazten du. Oinaze hau eta orain arteko 16 hildakoei gehitu behar dizkiegun istripuak, horietariko asko oso larriak, dira emaitzak. Horiek dira guk jasotzen ditugun emaitza bakarrak.

Horren erabat jakitun, Euskal Herriko gehiengo sozial eta politikoak dispertsioaren amaiera exigitzen du. Gobernu espainiarraren borondatea, ordea, kontrako norazkoan doa, eta bitartean, bere justifikaezinezko jarre-raren ondorioak ezagutzera eman ez daitezen ahalegintzen dabil; alegia, gizarteak gure egoera albo-kalte bat ez dela erakusten duten datuak izatea oztopatzen. Izan ere, dispertsio politika diseinatu zenean, egun pairatzen dugun egoera hau euren helburuen parte zen: euskal preso politikoen senide eta adiskideak kolpatzea. Hortik dator gure informazio eta salaketa lanari zilegitasuna kentzeko duten beharra.

Baina horrez gain, kartzela politika hau etengabe berritzen doa, gure koordinatzeko eta elkarri laguntzeko gure eragatik zein euskal gizartearen elkartasunari esker arindu ditugun alderdiak neutralizatzeko asmoz, araudi berriak aktibatuz.

Gizarteari, haren ordezkariari eta erakundeetako hautetsiei gure egoeraren berri ematea gure betebeharra dela deritzogu; gure egoera zein den eta egungo kartzela politikaren irismen eta ondorioek gudan duten eragina azaltzea.

Dokumentu hau, ondorioetariko bat ezagutaraztera zuzendua dago: euskal preso politikoen senide, lagun eta adiskideontzat, familia kide bat kartzelan izateak eta hauek bisitatzeko eskubidearen ariketa hutsak, suposatzen digun gastu ekonomikoa erakustea. Haatik, ezin dugu bidai hauen balio ekonomikoa kostu psikiko eta fisikotik bereiztu. Batez ere, zailtasunak eta nekeak gehitzen dizkioten egoera eta baldintza zehatz batzuen pean egiten baitira bidai hauek.

Dispertsioaren kostuak

Hasteko, azpimarratu behar dugu euskal presoak, dispertsioarekin eta berau gabe ere, **betidanik egon direla beren bizilekuetatik urrun**. 1978 urtetik dispertsio politikaren ezarpenerarte, Madril, Soria, Herrera de la Mancha eta Puerto de Santa María izan ziren beren kartzela destinoak, bai prebentiboentzat zein zigortuentzat. Ustez, bisitarako eta komunikaziorako eskubideak errespetatzen ziren. Zalantzarik gabe, aipatu eskubidearen gauzatzeak, derrigorrezko ahalegin ekonomikoa eta asteko gure deskantso orduak behar luketenen galera zekarren berarekin.

Dispertsio politikak, egoera hau larriagotu zuen jasan ezineko mugetara arte.

Aurreratu dugun moduan, dispertsioaren kostuak ez dira kostu ekonomiko handietara soilik mugatzen. Egin beharreko ehundaka kilometroez gain eta hauek egin behar ditugun baldintzei, zera gehitu behar diogu:

- **Egin beharreko bidaiak dakarren tentsioa**, bisita ez galtzeko beti erlojuaren kontra. Presondegira sartzera dugun urduritasuna, beti iritsi eta bisita hori beraien ordenagailuetan jasoa ez dutela esango diguten beldurrez, eta bisita egin gabe itzuli behar izatea; beti baita ere, katxeoen eta funtzionarioek izango duten jarreragatik arduratuta, edo eskatuko dizkiguten exigentziengatik kezkatuta. Gure senidea bisitatu ahal izango dugun jakin gabe, edo beste espetxe batetara aldatu ote duten jakin gabe.
- Aste osoko lanaren ostean, **deskantsurik gabe errepidean** jarri behar izateak dakarren neke fisikoa, eta geroko itzulera bidaiaren ondorengo hurrengo lan astean murgildu behar izateak dakarrena.
- Bidaia hauek **haur txikiekin edo/eta adin gabekoekin egin behar izateak dakarren neke fisiko eta psikologikoa** eta txikientzat bidai hauek suposatzen dutena.
- Bidaia hauek **adindunentzat edo/eta mugikortasun murriztua dutenentzat suposatzen duten sufrikarioa**, itxaron beharreko ordu luzez eta edonolako balditza klimatologikoei aurre egin beharrez, gainera.

- Gure bizitzak kartzelaren funtzionamendura (ordutegi, araudi, baimen, debeku, bidaia, paketeak,...) egokitu behar izateak suposatzen digun **desoreka** eta gure senidea tokiz aldatzen dutenean hutsetik hasi behar izateak.
- Gure senidea bisitatu ezin izatea, **gure osasun egoera dela-eta, honelako bidaia bat egiterik ez dugulako**. Egoera honetan gainera denborak gure kontra jokatzen du, gero eta ohikoago izaten baitira gaitxoaldiak adinean aurrera goazelarik.

Astez aste, aurre egin behar diogun egoera honek, **ondorio larriak dituzten neke fisiko eta psikologikoa** dakar berarekin. Izan ere, azpimarratu behar dugu **ez garela baldintza iragankorretaz ari**, zeintzuak modu puntualean denbora epe labur batean zehar toki izaten duten. **Egoera hauek urteak edota hamarkadak iraun dezakete, eta langile soil baten bizi baldintza eta baldintza ekonomikoekin, nekez jasan daitezke hainbat urte horiek.**


Euskal gizartearen elkartasunak, beti jakin izan du karga hau arintzen. Preso dauden gure senideak bisitatzeko prestutasuna, egindako ekarpen ekonomikoak, bidaia luzeetarako gidari bolondresak eta beste hainbat elkartasun keinuek, posible egin dute gure egoera zail hau hain lazgarria ez izatea. Hala ere, karga hau eta sortzen duen mina, gaur egungo kartzela politikaren helburuetako bat dira. Uste dugu adierazpen hau ez dela funtsik gabea: gure senideen urruntzeaz gain, beste hainbat inposizio eta arauak **gure eskubideen ariketa zaildu** egiten baitu, ezinezko bihurtzeraino, kasu batzuetan. Baita edozein laguntza eta elkartasun moduren kriminalizazio, difamazio eta jazarpenak ere sortzen digun kalteagatik. Dispersioaren politikaren diseinuak ez du tarterik uzten honek sortzen dituen kalteak arintzeko ere.

Ezbairik gabe, daturik esanguratsuen mapa aurkitzen dugu. Bertan, argi ikusten da **dispertsioa ez dela euskal preso politikoak estatu espainiar eta frantziarreko geografia osoan zehar banatzea**. Argi ikusi daiteke, **Euskal Herritik urrunen dauden kartzeletan kontzentratzen direla preso gehienak**, eta kontzentrazio hori, murriztu egiten dela Euskal Herrirainoko distantzia murriztearekin batera.



Mannheim
(Alemania)
1 1.430 Km

Fleury	Fresnes	Poissy	Villepinte
10 930 Km	7 930 Km	3 950 Km	3 950 Km
Nanterre	Bois d'Arcy	Osny	Reau Sud Francilien
1 930 Km	3 930 Km	5 970 Km	5 930 Km



Inposizioak, baldintzaileak eta erantsitako zailtasunak

Aurreko datuak ikusirik, euskal preso politikoen senide eta lagunen inguruari egin nahi zaizkion beste kalteen artean, ukaezina da dispertsioak hauen odoluste ekonomikoa bilatzen duela.

Euskal Herritik gertuen dagoen Logroñoeko kartzelara egindako bisita batek, 200 euroak gainditzen ditu erregai eta autobia gastuei eta bisiten ordutegiek egitera behartzen duten askari minimoen gastuei erreparatzen badiegu. Datu hau kontuan izanik, erraza da imajinatzea 2000 kilometrotatik gorako eta 36 ordu baino gehiagoko desplazamendu batek izango duen kostua.

Dispertsioaren gastu ekonomikoak neurtzeko orduan, berez luzeak eta garestiak diren desplazamendu batzuei zailtasunak gehitzen dizkioten baldintza eta inposaketak kontuan hartzea ezinbestekoa da, hauei lotuta gaudelako. Zaila da baldintza hauek bere osotasunean isladatzea: gure senideei sistematikoki aplikaturiko ezohiko araudiei, kartzela bakoitzak bere barne-araudiko gidalerroak gehitzen dizkio: batzuek kartzelako preso guztiei eragin diezaieke, eta beste batzuk, "segurtasun neurri" delakoen babesean emanak, gure senideei bakarrik eragiten die.

Dokumentu honetan, bisiten errejimena eta aurre egin behar diegun zailtasun erantsiak ulertzen lagunduko duten araudi eta baldintza nagusiak aipatuko ditugu.

Bisiten errejimena eta komunikabideak

- **Estatu espainiarrean**, bisitak asteko **40 minutukoak dira**. Lau senide edo baimendutako pertsona sar daitezke. Presoa bisitariengandik aldentzen duen kristala duen lokutorio batean egiten dira. Entzuketa interfono bidez egiten da.

Hilean behin senideen *vis a vis* bat eta beste intimo bat (ordubete edo ordu eta erdikoa, kartzela bakoitzaren arabera) egiten dira. Ezin dira bi *vis a vis* egin nahiz eta intimoa ez egin, eta zenbait kartzeletan ez dute bikotea senideen *vis a vis* bisitetan sartzen uzten baldin eta ez bada beste famili kide batez lagunduta sartzen.

10 urte baino gutxiagoko seme-alaben kasuan, *bizikidetzako vis a vis*-a deritzona jasotzen du legeak, lau orduko komunikazio berezia. Praktikan, komunikazio berezi hauek **mugatuak geratzen dira**, bi-hiru hilabetez behin baimenduak izanik soilik. Asko dira horrelako harreman mota hau izateko espazio egokituak jarri ez dituzten kartzelak. Kalte gehiena beti umeentzat da, jolaserako eta mugitzeko aukerarik ia ez duten gela itxietan ordu luzez egotera behartuak baitaude. Horrelako egoerak zapaltzaileak zaizkie.

- **Estatu frantsesean**, bisiten baldintzak oso ezberdinak izaten dira “Maisons d’Arrêt” delakoetan (epaitu gabekoentzako espetxeak) eta kondenatuentzako kartzeletan, kartzela zentraletan. Lehenengoetan, bisita motzak izaten dira (30 min bisita arrunta, ordu bat bikoitza, eta ordu eta erdi hirukoitza) eta gehienetan, sartzeko tramite guztiak berregin behar dira sartu-aterako txanda bakoitzean (Fresnesen adibidez, 30 minutako bisita egiteko, ia-ia egun osoan behar da, kasu). Zentraletan, normalki luzeagoak izaten dira eta baldintza lasaiagoetan. Kristala oso gutxi erabiltzen da Frantzian. Aldiz, vis a vis-ak ez dira existitzen, eta kontaktu fisikoak erabat debekatuak dira, duela urte batzuk garatzen hasi ziren UVF-etan (Unités de Vie Familiale) kenduta. Orain kartzela zentral gehienetan existitzen dira bisita berezi horiek (6 orduetik 48 ordura iraun dezakete familia bisitak dira).

- Gure senideak **dispertsatuak eta kartzela bereko modulo ezberdinetan** izateak, bakoitzarentzat komunikazio eta ordutegi ezberdinak izatea dakar. Honek, gastu ekonomiko eta fisikoak murrizteko (kotxea konpartituz, esaterako) senideok antolatu gaitezen zaildu eta oztopatu ere egiten du.

- Bisitak egun berdinean direnean eta garraio bide bat konpartitu dezakegunean, inposatutako ordutegi ezberdinek **ordu luzeetan zehar zain egotera behartzen gaituzte** bistaren aurretik edo ondoren. Hala, asteburuko lehenengo bisita larunbateko 09:00etan izan daiteke eta azkenengo igandeko 18:00etan. Hori dela-eta, antolatutako autobus edo furgoneten erabilerak, gastuak aurrezten eta gidatzea ekiditea lortzen badu ere, kartzela bateko atera goizeko seietan iristea suposatzen du, eta bueltako bidaia arratsaldeko zazpiak arte baino egin ahal ez izatea.

- Modulo ezberdinetako dispertsio hau **berariazkoa** eta arbitrarioa dela deritzogu, eta bere helburu nagusia gure desplazamenduei zailtasuna

eranstea da. Hori erakusten du kartzelak gure senideen ordutegiak batera izatea ukatzen duenean, haien artean kontakturik ezin dela egon argudiatuz. Halere, etengabeak dira gure senideen modulo aldaketak, beraz, atzo elkarren arteko kontakturik ez zutenak orain elkarrekin daude, eta orain arte elkarrekin zirenak, baliteke bihar kontakturik ez izatea.

- Bisita egin ahal izateko, bai estatu espainiarreko kartzeletan zein estatu frantsesekoan, beharrezkoa da kartzelan asignatutako ordua baino **ordubete lehenago bertaratzea**.

Aurretiaz denbora zehatz horren baitan kartzelan bertan izateko edozein galarazpen edo berandutzeak bisitaren galera esan nahi du. Beraz, gure bidaiak egiteko, beharko litzatekeena baino askoz lehenago jarri behar gara abian. Ez soilik bisitak izateko ezarritako hitzordua baino ordubete lehenago iristeko, baizik eta bidean zehar topa ditzakegun edozein gorabeherak (matxurak, errepideko erretentzioak, atzerapenak trenetan edo garraio bide-aldaketetan, edo ohikoenak diren ex profeso polizia kontrolak) bisita galtzera eraman ez gaitzan.

- **Estatu espainiarrean**, , senide zuzenak ez diren pertsonen bisitak Kartzela Erakundearen arabera da, eta erabakia beti izaten da arbitrarioa. Pertsona bati bisita ukatzen zaionean, edo gaizki arrazoitzen zaio, edo arrazoi orokorrak erabiltzen dira ukapena azaltzeko. Kasu horretan, bisita arruntak baino ezin ditu izan.

Euskal preso politikoak, senideak ez diren hamar pertsonekin bakarrik komunikatu daitezke. Horretarako, soilik sei hilabetez behin berritu daitezkeen hamar izeneko zerrenda bat aurkeztu behar da. Pertsona horietariko baten bat onartua ez balitz, kartzela batzuetan erreserbako izenak sartzea dago. Beste batzuetan, ordea, zerrendako pertsona kopurua murrizten da, berez onartuak dauden hamar pertsona proposatzeko aukerarik gabe. Modu horretan, denbora edo epe mugatu batean pertsona kopuru murriztu batek soilik bisitak egin ditzan behartzen da, eta pertsona ezberdinen artean banatuago, denboran tartekatuago ere, eta ekonomikoki merkeagoak izan daitezkeen galarazten da.

- **Estatu frantsesean**, presoaren senide zuzenak edo adiskideak izanda ere, bisiten baimena epailearen arabera da prebentiboan dauden bitartean, fiskalaren esku sumarioa behin itxita dagoenean, eta behin zigorituak direla, kartzelako zuzendariaren arabera.

Edozein baimenerako itxaron denbora mugagabea da. Kartzelan sartzen diren unetik lehen baimena eman arte, hiru hilabete igaro daitezke gure senideak ikusi ahal izan gabe. Bisita eskaeraren erantzuna oso berandu eta denboran oso barreiatuta dator. Eta beste batzuetan ez dira heldu ere egiten. Zaila da adiskideentzat bisita baimenak lortzea baina baita ere senideentzat, eta denbora luzez, bidaiak jende berdinaren artean banatu behar izaten dira.

Estatu frantsesean kartzelaratua izan den pertsona bat denean, nahiz eta senide zuzena izan (gurasoak, seme-alabak edo anai-arrebak) egoera paradoxikoa ematen da: senideari bisita onartu dakiok, baina ez horrela estatu frantsesean sartzea.

- **Estatu espainoleko zeinbat kartzeletan**, komunikazio bereziko bisitak edo vis a vis-ak, **lanegunetan ezartzen dira**. Soilik batzuetan, laneko ziurtagiriek baimentzen dute aurkezten dituzten senideei bisitak aste-buruetan izatea. Honek, hilabeteko desplazamendu gehiago izatera derrigortzen du, gastu gehiago izatera, arrisku gehiago, eta zailtasunak gehitzen dizkie langileei, askotan euren opor egunak agortu behar dituztelako bidai hauek egiten.

Askoz larriagoa izaten da lanegunetan diren **bizikidetzako vis a vis-** en kasua, gutxienez egun batez **huts egin behar izaten baitute haurrek eskolara**, eta bidai luze batetik behar bezala deskantsatu gabe bueltatu behar izaten dira ondoren.

Ezartzen dizkiguten ordutegien arabera desplazatu behar gara. Bisita ordutegiak ez dira sekula ezartzen desplazatzeko aukeren arabera. Erabat ezinezkoa da bisiten ordutegiak eta kartzela batera heltzeko beharrezkoak diren garraio loturak elkarrekin bat etortzea. Honek trena edo/eta autobusak bezalako garraio ezberdinen arteko aldaketa zailak suposatzen dizkigu (gogoratu behar dugu edozein trenen berandutzeak bisita galtzera eraman gaitzakela), baita beste zailtasun eta itxaron orduak, bueltako bidairako.

Nahiz eta bisita arruntetarako (lokutorioetan) beti larunbat edo igande bat ezartzen den, honek ez du kentzen zenbait ordutegiek zailtasun handiegia suposatu eta desplazamenduek arriskurik ez gehitzea. Adibidez, Valentziako euskal presoek aipatzen ditugu, zeinak ostiraleko lehen orduan edo igandeko azkenengoan izan daitezkeen soilik. Lan ordutegia tren konbinazioekin bat egiteko ezintasunak, bidai gauez egitera behartzen du, osteguneko gau osoan zehar gidatuz edota aste-leheneko egunsentian.

Zailtasun hauei eta sortutako saminari, baten ezean, bi senide preso (aita-semea-alabak; anai-arrebak, bikoteak) izatearengatik eratorritako sufrimendua gehitu behar diogu. Zentzu honetan, gogorarazi behar dugu aspalditik daramagula publikoki salatzen kartzela berean sartu izan diren bikoteen kasuak, baina gero bananduak eta elkarrengandik urrutiratuak izan direnak. Egoera hau azken hilabeteotan areagotu da, kartzela politikaren gogortzearen erakusle. Guretzat, euren senide eta lagunontzat, nekea areagotzen da, baita gastua eta zailtasunak ere. Bikote hauen seme-alabentzako, mina konponezina da.

Dispertsioaren odoluste ekonomikoa

Kartzela bakoitzarentzat eta are gehiago, modulo bakoitzarentzat, bisita ordutegien, gure lan ordutegien eta gure osasun egoeraren arabera, garraibide eta aukerak ezberdinak dira, eta, beraz, gastuak ere. Eginahal guztiak egin arren, ezin dugu beti garraio merkeena eskuratu.

Dena den, dispertsioak ezartzen duen zigor ekonomikoaren datuak hona ekartzen saiatu gara. Datu hauez gain, askotan oso orokorrak baitira, beharko lituzketen eragile eta erakundeei, eskatzen diguten edozein datu zehatz, ordainagiri edota frogagiri ematera konprometitzen gara.

Gaur egun, euskal preso politikoak **estatu espainiarreko eta frantseseko 76 kartzeletan** dispertsatuak daude. Aurreko ataletan aipatu ditugun arrazoi eta zailtasunengatik, 21 bidai antolatu ahal izan ditugu bakarrik, estatu espainiarreko 16 kartzela, eta frantseseko bost kubritzeko. Zoritxarrez, bidai guztiak ez dira astero egiten.

- **Andaluziarako autobusa. Etxeratek antolatua.** Etxeratek antolatua. Astero doa Puerto I, Puerto III eta Botafuegoko (Algeiras) kartzelatar. Sevillako preso senideek garraio hau Sevillaraino erabiltzen dute. Gero Moronera joan behar dira beste autobus batean edo alokatutako kotxean bisita lehen orduan badute.

- **Mirentxin Elkartasun Gidarien Kolektiboko furgonetak.** Ogoratzen dugu kolektibo hau senideak laguntzeko ehundaka eta milaka kilometro egiten dituzten furgoneten gidaritza euren kargu hartzen duten pertsonez osatua dela. Bidaiak ostiral arratsaldean hasten dira eta larunbateko eta igande arteko egunsentian bukatu. 9 furgoneta dira, horietatik 3 Huelva, Almeria eta Granadako espetxeetara doaz astero. Gainontzeko 6ak, txandakako asteburuetan Kordoba, Murtzia I eta II, Alakant, Valentzia, Castelló, A Lama (Pontevedra) eta Herrera de la Manchara doaz, eta estatu frantsesean Lyon, Roanne, Poitiers eta Saint Maur-era. Clairvaux-ko kartzelara bi hilabetez behin joaten dira.

Valentziakoetan, euskal emakumezko preso senideak ezin dira zerbitzu honetaz baliatu, gizonezkoek bisitak larunbat goiz eta arratsaldean zehar dituzten bitartean, emakumezkoek ostiral arratsalde edo igande arratsaldean dituzte.

- Egin beharreko ibilbidearen arabera, bidai hauen kostea 65 eta 120 € artekoa da pertsonako furgonetetan, eta 110 eta 125 € artekoa autobusean. Umeekin bidaiatu behar duten senideen karga ekonomikoa arintzeko, haurrei ez zaie tiketik ordainarazten, ez autobus ezta furgonetetan. Pertsona hauek garraio hauek ezin dituztenean erabili eta tren edo hegazkinera jo behar dutenean, gastua sostengaezina da.
- **Autobus zein furgonetetako plazak mugatuak** direla jakinda (azken honetan, zazpi plaza gehi bi gidariak), lehentasuna ematen zaie vis a vis bisitei. Hau da, komunikazio horretarako beharrezkoak diren txandak errespetatzen dira, eta gainontzekoak banatu egiten dira, ahalik eta bisita kopuru gehiena bermatzeko. Honek, bisita bakoitzeko pertsona bakarraren bidaiak kubritzea dakar normalean, eta aipatu izan dugun moduan, ez asteburu guztietan.

Gure salaketetako bat den dispersioaren odoluste ekonomikoa ahal den neurrian dokumentatzeko, erreferentzia moduan hartu ditugu distantzia, bidai eta garraio ezberdinak - hartzen ditugun hainbat alternatibak azalduz ere - . Beste kartzela askotako desplazamendu gastuak falta izateaz gain, bidaietan beste baldintza batzuk eragiten dituzten egoerek sortutakoak ere falta dira (haur txikiak, pertsona edadetuak, pertsona gaixoak...): bidai egun gehiago, geldialdi gehiago, otordu erregularizatuak...edota garraio zehatz batzuk erabiltzea eragozten diguten egoerak. Esaterako, bakarrik odol zirkulazio arazoak dituen pertsona batentzat – adin batetik aurrera arazo ohikoenetarikoa - 25 ordura hel daitekeen autobus bidai bat zigor eta arrisku latza dira.

Zaila da ere gastuak zehaztea tren edo hegazki bileteetaz ari garenean, prezio ezberdina baitute bidai berdinerako hainbat aldagaien arabera, eta noski, libre topa ditzakegun plazen arabera.

Gastuak zenbatzeko orduan, erregai, bidesari eta bidai tiketez gain, bazkariko 10 €, afariko 8 eta gosariko 3 ezarri ditugu, bidai batean batzbesteko aurre egin behar ditugun gastu bezala. Ohiko prezioek guk aipatu ditugunak baino askoz garestiagoak dira, baina gastu hau ahalik eta gehien murrizten saiatu gara etxetik ahal dugun guztia aldeztatik aurretik prestatuta eramanda. Haa-tik, inoiz ez da erraza, eta beti ezin dira janariaren pisu eta paketeak eramán, ez kontserbatzeko aukerengatik, eta erraza ere ez delako geldialdi batetik bestera gure gauzekin zein gure senideentzako paketeak eramatea. Bestalde, itxaron une luzeak ere izaten dira, eta kalean izan ez daitezten, kontsumizio minimo bat hartzera derrigortzen dute. Horrez gain, prezioak nabarmen garestiagoak dira estatu frantsesera bidaiatzen denean.

Horri, logelen prezioak gehitu behar zaizkio gaua pasatzera geratu behar garenean. Ez dugu gehitu, ordea, autoaren depreziazio gastuak, baldin eta kotxe propioa erabiltzen bada.

Botafuegoko Espetxea, Algezirak - 1100 Km

Bisiten ordutegia: Arruntak, larunbat goizean zehar.
Vis a vis-ak, larunbateko goiz eta arratsaldean.

Erreferentzia: Bi senideren bisita, Iruñeatik, hilean behineko vis a vis-a (larunbateko 10:30etan) eta asteroko bisita (larunbateko 13:00etan)

1 AUKERA: AUTOBUSA (Etxerat)

Ibilbidea: Lopidana – Puerto de Santa Maria kartzela – Botafuegoko kartzela, Algezirak.

**Autobusak lehenik Puerto I eta Puerto III-ko espetxeetako senideak uzten ditu, ondoren Algeziraseko espetxera joaten da eta azkenik Algezirasera doaz non txoferrek derrigorrezko deskantso eta lo orduak egiten dituzten. Bertan egoten dira larunbat arratsaldeko 19:00ak arte, itzulera ordurarte, hain zuzen.*

- Irteera ordua: **Ostiraleko 20:00etan**
- Algeziraserako iritsiera: Larunbateko 6:00etan
- Algezirasetik itzulera : Larunbateko 19:00etan
- Lopidanarako iritsiera ordua: **Igandeko 5:30- 6:30etan**
- Biletetaren prezioa: **125.00 € bakoitzeko**

Loturak eta transbordoak:

1: Iruñea - Lopidana

- Garraiobidea: norberaren kotxea
- Irteera ordua: **ostiral arratsaldeko 17:30.**
- Ibilbidearen iraupena: ordubete.
- Erregaia: 11,95 € - Autopista: 2,15 €
- Guztira: **14,10 €**

2: Botafuego espetxea-Algezirak: 6 Km.

Kartzelako autobusa / Elkarbanatutako taxia.

3: Lopidana-Iruñea. 100 Km.

- Erregaia: 11,95 € -Autopista: 2,15 €
- Guztira: **14,10 €**
- Iruñearako iritsiera ordua:**Igandeko 6:30-7:30**

Bidaia osoaren iraupena: **39 ordu**

Beste gastuak: bi afari, bazkari bat, eta gosari bat: 32€ (x2) = 64.00 €.

Bi pertsonentzako kostu osoa, bisita bat eta vis batekin: **310.20 €**

2. AUKERA: TRENEZ

Ibilbidea: Iruñea-Zaragoza-Málaga-Algezirás-Málaga-Zaragoza-Iruñea

Loturak eta transbordoak:

1: Iruñea - Zaragoza, trenez

- Irteera ostiraleko goizeko 7:43.
- Zaragozara iritsi 9:50.
- Pertsonako preziorik merkeena 15,30 €.

2: Zaragoza-Málaga, trenez

- Irteera goizeko 10:20etan
- Malagara iritsi, eguerdiko 14:25etan.
- Preziorik merkeena 49,50 €.

3: Málaga-Algezirás; Algezirás-Málaga kotxe alokatuan

Alokairua aseguruekin: 70 €.
Erregaia: 27.00 € (x2) 54,00 €.
Autopista: 18,10 € (x2) = 36,20 €.
Guztira: 160,20 €.
Algezirásera iritsiera gutxi gora behera: 17:00etan.

4: Málaga - Zaragoza, trenez

- Irteera larunbateko 15:35.
- Zaragozara iritsiera 19:35.
- Preziorik merkeena 98 € pertsonako

5 Zaragoza - Iruñea, trenez

- Irteera: 21:00etan..
- Iruñeara iritsiera 22:45
- Preziorik merkeena: 18,00 € pertsonako.

Beste gastuak: Bi bazkari, afari bat eta gosari bat 31.00 € (x2) = 62.00 €
Logela bikoitza, gau bat: 45.00 €

Bi pertsonentzako kostu osoa, bisita bat eta bis batekin: **628.00 €**

3. AUKERA KOTXE PROPIOAN

Ibilbidea: Iruñea-Botafuego Espetxea, Algezirás-Iruñea: **2200 Km**

- Irteera ordua: Iruñeatik, **Ostiraleko goizeko 8:00etan**
- Automibilaren bolantean: 25 ordu joan etorria
- Bidaiaren iraupena: 43 ordu gutxi gora behera
- Iritsiera ordua, Iruñeara :**Igandeko 3:00-4:00**
- Erregaia: 260.00 €
- Autopista: 57.90 €
- Guztira: **317.90**

Beste gastuak: Afari bat eta gosari bat 11.00 € (x2) = 22.00 €.
(bazkaria etxetik eramana;
Logela bikoitza, gau bat: 45.00 €

Bi pertsonentzako kostu osoa, bisita bat eta vis batekin: **384.90 €**

Gainontzeko hileko bisiten kostua, bisitako pertsona bat (autobusez):
 $182.20 \times 3 = \mathbf{546.60 \text{ €}}$

HILEROKO KOSTU OSOA:

lau bisita, vis a vis batekin, preziorik merkeena: = **865.80 €**

Bapaumeko Espetxea (Estatu Frantsesean), - 1100 Km

Bisiten ordutegia: - Ostiralean, 13:30etatik 17:30etara.
- Larunbatetan, 8:00etatik 12:00etara eta
13:30etatik 17:30etara.
- Igandetan, 8:00etatik 12:00etara.

Erreferentzia: Bi senideren bisita, Iruñeatik, hilean behineko vis a vis-a (larunbateko 10:30etan) eta asteroko bisita (larunbateko 13:00etan)

Ibilbidea: Orozko-Hendaia / Dax-Paris-Bapaume-Paris-Hendaia / Dax-Orozko.

- Irteera ordua: ostirala goizeko 7:30ak.
- Bapaumerako iritsiera arratsaldeko 20:00ak.

Loturak / Transbordoak:

1: Orozko-Hendaia 130 Km / Orozko - Dax 210 Km

- Garraioa: Kotxe propioa.
- Bidaiaren iraupena ordu eta laurden / bi ordu eta erdi.
- Erregaia: 15,00 €.
- Autopista: 12,00 € / 22,00 €.
- Guztira: 27,00 €- 40,00 €. Joan etorria: **54,00 / 80,00 €.**

2: Hendaia/Dax - Paris

- Garraiobidea: Trena.
- Txartelaren prezioa: **150,00 €**, joan etorria pertsonako.

3: Paris - Arras

- Garraiobidea: Trenez.
- Txartelaren prezioa: 2,60 €; 5,20 € pertsonako joan etorria.

4: Arras - Bapaume

- Garraiobidea: espetxeko autobus edo furgoneta.
- Txartelaren prezioa: 4,00 – 7,00 € 8,00 €- 14,00 € pertsonako joan etorria.

Beste gastu batzuk, gosaria 10 € (x2) = 20.00 €

(Bazkari eta afariak etxetik eramaten dira).

Gau baterako logela bikoitza **85.00 €.**

Bidaiaren kostu osoa, bi pertsonentzako bisita bat: **478,00 € - 515,00 €.**

Hilabeteko beste bisiten kostua: 325 € x 3 = **975 €.**

LAU BISITETARAKO KOSTU OSOA: 1475,00 €.

ALMERIAKO ESPETXEA. 922 Km.

Bisiten ordutegia: Arruntak, larunbat goizean zehar.

Erreferentzia: Pertsona bat, Iruñeatik, asteroko bisita (larunbateko 12:00etan)

Garraiobidea: MIRENTXIN FURGONETA

Ibilbidea: Lopidana (Araba) - Almería - Lopidana

Ibilbidea: - Irteera ordua: ostiralean 20:00tan
- Almeriara iritsiera: Goizeko 6:30-7:00etan
- Lopidanara itzulera: igandeko goizeko 6:00ak.
- Txartelaren prezioa: -

Loturak: **1: Iruñea - Lopidana; Lopidana - Iruñea**

- Garraiobidea: norberaren kotxea
- Irteera ordua: **ostiral arratsaldeko 18:30.**
- Ibilbidearen iraupena: ordubete.
- Erregaia: 11,95 € - Autopista: 2,15 €
- Guztira: **14,10 €**
- Joan etorria: **28.20**
- Iruñeara iritsiera **igandean goizeko 7:30etan.**

Beste gastu batzuk, Bazkari, afari eta gosariak: 21,00 €. Logela 25 €.

Bidaiaren kostu osoa, bisita bat egiteko pertsonako: **159.14 €.**

Hileko gainontzeko 2 bisiten pertsonako kostua: **318,00 €.**

Bidaiaren kostua 3 pertsonentzako, bisita eta vis a vis-erako: **421,14 €.**

HILEKO KOSTUA 4 BISITA ETA VIS AVIS-ERAKO: 898,00 €.

Liancourt Espetxea (Estatu Frantsesean), - 1000 Km

Bisiten ordutegia: - Hiru orduko bisitak asteartean, asteazkenean edo larunbatean

Erreferentzia: Gurasoak eta ahizpa, asteroko bisita egiteko

Garraiobidea TRENEZ

Ibilbidea: Iruñea-Hendaia-Paris-Liancourt-Paris-Hendaia-Iruñea

Loturak / Transbordoak:

1: Iruñea - Hendaia, Hendaia-Iruñea

- Garraiobidea: norberaren kotxea
- Irteera ordua: **ostiral arratsaldeko 16:30.**
- Ibilbidearen iraupena: ordubete.
- Erregaia: 20.00 € - Autopista: 7.00 €
- Guztira: **27.00 €**
- Guztira: 27,00 € Joan etorria: **54,00**

2: Hendaia - Paris, Paris- Hendaia, trenez

- Irteera ordua: ostiral arratsaldeko 19:30.
- Parisera iritsiera: larunbateko goizeko 7:30 etan
- Txartelaren prezioa: **140.00 €** pertsonako joan etorria

3: Paris - Liancourt,

- Metroz: 1.50 € pertsonentzako; 3.00 € joan etorria
- Taxiz (10 km): 20.00 €; **40.00€** joan etorria

Beste gastu batzuk, Bi logela, 120.00 €

Bidaiaren kostu osoa, gurasoak eta ahizpa bisita bat egiteko: **643 €.**

Eta gastu gehiago

Aipatutako kostuez gain, behin eta berriro azpimarratu nahi dugu, estatutuak ez dituela presoak mantentzen, askotan arinki esan ohi den bezala. Presoak beren familiek mantentzen dituzte. Eta ez da egia haien behar oinarrizkoenak aseturik daudenik edota espetxean daudelako dirurik behar ez dutenik. Kartzelak elikadura eta garbitasun baldintza eskasak bermatzen ditu soilik:

- Komuneko papereko 4 erroilu.
- Plastikozko kubiertoak.
- Hortzorea.
- Gel pote bat.
- Lixiba pote bat.
- Sei kondoi gizonetzkoen kasuan eta konpresa pakete bat emakumezkoenentzat.
- Urtean bitan, orrazi bat esponja bat eta plastikozko baso bat gehitzen dute.

Presoek, zakar poltsak, xaboia, estropajoa, baietak, txanpuak, tanpoiak, bizarra mozteko aparra,...eta finean garbiketa edo higienarako edozein produktu erosi behar dute. Gainera, zigiluak, gutunazalak, koadernoak, boligrafoak, folioak,...Edota esneki, txerriki, kafe eta baimendutako beste elikagai apurrak ere erosi behar dituzte, beren elikadura eskasa osatu nahi badute.

Ziurrenik ezagutzen ez den beste datu bat ere, presoek hainbat produktu kartzelaren bitartez soilik eros ditzaketela da. Horrela da adibidez, ordenagailu, telebista, irrati eta eskulanetarako materialekin. Hau dela-eta, kostu handieneko gailuak (telebista, ordenagailuak,...) epeka ordaindu ahal izatea ezinezko egiten zaigu. Honek, egin ezin ditugun kostuak ordaintzera eramaten gaitu. Gainera, presoak erosketa egin ahal izateko, dirua kartzelako kontu korrontean sartzera behartuak gaude modu berean. Bestalde, azpimarratu nahi dugu, presoek ez dutela dirua metalikoan izateko aukerarik eta derrigorrez kontu korronte batean diru hori sartzeko, suposatzen duen negozioa sostengatzera behartzen gaitu.

Kartzelak, asteko 80 €-ko gastua baimentzen du gehienez (lehen aipatutako gastu berezi horiek salbu: irrati, telebista,...). Kontuan izanik hileko onartzen zaizkien deien gutxieneko kostua 40 €-koa dela, presoek gutxienez 200 € behar dituzte hileroko beren oinarrizko beharrak asetzeko.

Arropa eta oinetakoak gehitu behar dizkiogu horri. Eskulanetarako materiala eta irakurketarako. Ikasketarako liburuak zein materiala, matrikulazio gastuak barne. Betaurrekoak. Hortalariak (dentistas). Baita konfidantzazko mediku eta asistentzia juridikoa noski

Ez gara kapritxo, edota are gutxiago, luxuetaz ari. Kartzelako bizimodu duin batetaz ari gara. Eskubideetaz ari gara: higiene eskubideaz, osasun eskubideaz, asistentzia juridikorako eskubideaz, ikasteko eskubideaz, hitzezko eta idatzizko komunikazio eskubideaz... Eskubide hauek gauza tzeak eskatzen duen diru gastuari aurre egitea, ezinezkoa da presoek eurek bakarrik egitea. Gu geu, senideok gara, gastu guzti horiek gure egin behar ditugunak.

Nahiz eta dispertsioak hileroko gastu itzela egitera behartu, zailtasunak besterik ez ditugu aurkitzen laguntza sozialak edo diru-laguntza intituzionalak jaso ahal izateko. Beste talde edo kolektiboek jasotzen dituzte diru-laguntzez ari gara, hain zuzen. Are gehiago, inoiz edo behin laguntzaren bat eman zaigunean, gehienetan Espainiar Gobernuako Delegaziotik errekurritua izan da. Horra dispertsio politika gurekiko, senideekiko, duen talantearen adibide garbia.

Euskal Herrian, 2015ko uztailean